

Bezeroen segmentazioa

Gure proiektuan bezero segmentu ezberdinak doguz. Gure aplikazioa hiru taldetara dago zuzenduta: merkatarien elkarteak denda txikiei zuzentzeko, denda kate handiak eta gure aplikazioa instalatuta dauzkaten kontsumitzaileak. Kontsumitzaile honek mobikorrekin aplikazioak erabilteko ohitura izango dabe.

Hiru bezero mota honeekin gure helburu nagusia aplikazioa zabaltzea da.

Eremu geografikoari dagokionez, hasiera baten Euskaditik zehar hasiko ginateke baina gure helburua mundu osotik zabaltzea da. Gure aplikazioa, tresna gisa gailu bat erabilten dabenezat dago zuzenduta. Mugikor bat daukan edozeinek erabili daike gure aplikazioa.

BEZERO TALDEEI DAGOKIONEZ:

→ **MERKATARIEN ELKARTEAK:** denda txikietara iristeko merkatari txikien elkarteei aplikazioa saltzea lortu behar dogu. Merkatarien elkarteek interes handia dabe denda txikiak digitalizatzean. Beraz, merkatarien elkarteei gure aplikazioa saltzean, eurak ordainduko ligukete gure aplikazioaren zerbitzuagatik, mantentze lanengatik, hobekuntzak egiteagatik, instalatzeagatik... eta gainera, elkarteek gure aplikazioa eta sistema jarten daben saltoki txiki bakotzeko diru kopuru bat ordainduko leuskigüe.

Honen adibidea <https://www.bilbaodendak.eus/> da. Bertan Bilbon kokatzen diran denda txikiak dagoz eta helburu nagusi batzuk daukie: denda handiak indartzea eta sustatzea. Hasiera baten Euskaditik zabaltzen hasiko ginateke, hemen dagozan merkatari elkarte garrantzitsuenak <https://www.euskaldendak.org/>, <https://artisau.org/> dira, adibidez.

→ **DENDA HANDIAK:** bigarren bezero mota denda handiak dira. *Inditex* taldekoak, esate baterako (Zara, Stradivarius, Massimo Dutti...), *supermerkatuak* (BM, Eroski, Mercadona, Carrefour...), *kirol dendak* (Decathlon, Forum, Sprinter...), *gasolindegia* (Repsol, Eroski, Cepsa...). Orain dala gitxi dendak papelezko poltsa erabiltera behartuta egon dira, ingurumena zaintzeko. Gure aplikazioaren bidez dendak ticketetan erabilten daben kopurua murriztea da helburua, horrela dendek dirua be aurreztuko dabe.

→ **GURE APLIKAZIOA INSTALATUTA DABEN BEZEROAK (ON-LINE EROSTEN DABEZANAK ZEIN DENDA FISIKOTAN):** erosleari erosotasuna eskaini gura deusagu. Mugikor bat eta teknologiar buruzko ideia txiki bat daukan edozeinek gure aplikazioa gozatzeko aukera deko.